

XEDAPEN OROKORRAK

LEHENDAKARITZA

4529

197/2014 DEKRETUA, urriaren 21ekoa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari buruzko Dekretua aldatzekoa.

Garapenerako lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legearen bidez, batetik, Lankidetzarako Euskal Kontseilua sortu zen, lankidetzarako eragileen ordezkari-organoa gisa, zeinak gaitasuna baitu garapenerako euskal lankidetzaren publikoari buruzko proposamenak egin, irizpenak eman eta jarraipena egiteko, eta, bestetik, haren osiera zehaztu zen, zeina mistoa eta parekidea izango baita ordezkari instituzional eta sozialei dagokienez.

Haren osiera eta funtzionamendua irailaren 16ko 158/2008 Dekretuaren bidez arautzen dira (2008ko urriaren 2ko EHAA), zeinen 3.1 artikuluan xedatzen baita Garapenerako Lankidetzarako Euskal Kontseiluaren buru garapenerako lankidetzaren ardura duen sailburua izango dela. Sailburua kanpoan edo gaixorik badago, garapenerako lankidetzaren ardura duen sailburuordeak ordezkatu du.

Irailaren 16ko 158/2008 Dekretuaren 3.3.b) artikuluan zehazten denez, Kontseiluaren osieran, 7 pertsona izango dira Eusko Jaurlaritzaren ordezkari gisa, honakoa sail hauen ordezkari bana, alegia: Lehendakariorde; Lehendakariorde; Ogasun eta Herri Administrazioa; Industria, Merkataritza eta Turismoa; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa; Osasuna; Ingurumen eta Lurralde Antolamendua.

Administrazioeko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuaren 4.1.h) artikuluan, Lehendakariordeari esleitzen zaio garapenerako lankidetzaren gaineko eskumena. Horrenbestez, Kontseilua Lehendakariordeari atxikitzen zaio, eta, ondorioz, kontseilu horretan Lehendakariordeak duen ordezkari-egokitu beharra dago. Atxikitze berri horren arabera, halaber, ongizatearen eta gizarte zerbitzuen gaineko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako saila ez litzateke ordezkari-egongo Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan, eta, koherentzia politikoa eta erantzukizun instituzionala direla eta, zirkunstantzia hori zuzendu behar da, oso garrantzitsutzat jotzen baita aipatu organo kolegiatuan ordezkari-egokitu hori egotea.

Beste alde batetik, Kontseiluan ordezkari-egokitu izan behar duten Eusko Jaurlaritzako sailak zein diren hobeto identifikatzeko, eta sailen izenak aldatu daitezkeela kontuan hartuta, komenigarri-gotzat jotzen da aipatu organo kolegiatuan beren eskumenak direla-eta egotea justifikatuta duten sailak eskumen horien arabera aipatzea.

Horregatik, komeni da aipatu Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari buruzko irailaren 16ko 158/2008 Dekretuaren 3.1 eta 3.3.b) artikulua beste modu batean idaztea.

Horren ondorioz, Lehendakariordearen proposamenez, Lankidetzaren Euskal Kontseiluak txostena eginda, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2014ko urriaren 21ean eginiko bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

2014ko urriaren 27a, astelehena

XEDATZEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Aldatzea Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari buruzko irailaren 16ko 158/2008 Dekretuaren 3. artikuluaen 1. paragrafoa. Aurrerantzean, honela idatzita geratuko da:

«1.– Garapenerako Lankidetzarako Euskal Kontseiluaren lehendakari garapenerako lankidetzan eskumena duen Jaurlaritzako kide bat izango da. Hura kanpoan edo gaixorik badago, Idazkaritza Nagusiko edo garapenerako lankidetzan ardura duen sailburuordetzako pertsona titularrak ordezkaturiko du.»

Bigarren artikulua.– Aldatu egiten da Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari buruzko irailaren 16ko 158/2008 Dekretuaren 3. artikuluaen 3. paragrafoa. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«b) Zazpi pertsona Eusko Jaurlaritzaren ordezkari gisa, arlo hauetan eskumena duten sail bakoitzetik bana izendatuak: atzerri-ekintza, nekazaritza, gizarte-ongizatea eta gizarte-zerbitzuak, ogasuna, hezkuntza, osasuna eta ingurumena.»

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko urriaren 21ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.